

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

**Behin betiko onarpena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzari**

Aiarako Udaltzaren, 2014ko azaroaren 20an egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko Aiarako Udalak familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzari.

Agiria jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartutzat jotzen da. Hona hemen:

**Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantza**

#### **Lehenengoa. Araudiaren xedea**

Araudi honen xedea da familiei emango zaizkien urteko dirulaguntzak arautzea, zeinak izango baitira Aiaran erroldatutakoek ordain ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak).

#### **Bigarrena. Funtsezko printzipioak**

1. - Ordenantza honen bidez araututako dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da ebazpena ematen den unean aurrekontuan dirua baliagarri egotea, bai eta kreditu egokia eta nahikoa egotea ere.

2. - Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira.

3. - Aiarako Udalak lehendik dirulaguntza eman izanak ez die inolako eskubiderik ematen eskatzaileei eta ez da irizpide erabakigarria izango dirulaguntza berriro ematerako orduan.

4. - Dirulaguntza emateak ez dakar berekin inolako kontratu harremanik, ez zibilik, ez lanezko, ez administraziokorik, Aiarako Udalaren eta dirulaguntza jasotzen duen pertsonaren edo erakundearen artean.

5. - Ezingo da eskatu emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea, salbu eta aparteko inguruabarrak direla-eta horretarako arrazoiak badaude eta udalak aldeko txosten arrazoitua ematen badu.

6. - Udal araudi honen aplikazio eremutik kanpo daude ordenantza honen xedearekin zerkusi zuzena ez duten laguntzak, bai eta indarreko araudia betez Aiarako Udalak ematen dituen prestazioak ere.

7. Ordenantza honen ondorioetarako, dirulaguntza hau da: udaltzak pertsona fisikoen alde egiten duen diru esleipen oro, onuradunen kontraprestazio zuzenik gabe.

8. Oinarri hauen arabera emandako laguntzak dirulaguntzak izango dira eta, ondorioz, honakoak aplikatuko zaizkie: otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; 1955eko ekainaren 17ko toki erakundearen zerbitzuen arautegia; eta egoki den legeria osagarria.

**Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

Ordenantza honen ondorioetarako, hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

Familiei ordaintzea Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak).

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da Aiarako Udalak jarduera horiek ez eskaintzea eta, ostera, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek edo haien mendeko erakunderen batek ematea.

Dirulaguntzak bakar-bakarrik izango dira bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko. Ez dira barne sartuko instalazio haietan egiten diren kirol jarduerak edo bestelako erabilerak.

**Laugarrena. Onuradunak eta eskatzaileak**

Onuradun izango dira jardueran izena ematen duten unean Aiara udalerrian erroldatuta daudenak, baldin eta, diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan erroldatuta badaude Aiara udalerrian.

Dena den, adingabeen kasuan, laguntzaren eskatzailea diruz lagunduko den jardueran parte hartzen duen adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izango da. Hauexek dira onuradunek bete behar dituzten betekizunak:

a) Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan Aiara udalerrian erroldatuta egotea.

b) Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

c) Aiarako Udalaren diru kutxetan egin beharreko ordainketak egunean izatea.

Ez dira izango ez dirulaguntzaren onuradun ez eskatzaile azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonak.

**Bosgarrena. Onuradunen eta eskatzaileen betebeharrak**

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

a) Aiarako Udalari betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea.

b) Dirulaguntza honen esparruan egin daitezkeen egiaztapen jarduerak onartzea, eta eskatzen zaion informazioa ematea.

c) Aiarako Udalari ahalik eta azkarren jakinaraztea beste dirulaguntza, laguntza edo diru sarrera batzuk lortu direla diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.

d) Jasotako funtsak erabili direla frogatzen duten agiriak edukitzea, zeren eta egiaztatuak eta kontrolatuak izan baitaitezke.

e) Dirulaguntza itzuli behar izateko inguruabarretako bat gertatuz gero, jasotako kopurua itzultzea.

Eskaeran jaso beharreko daturen edo agiriren bat ez bada ematen edo faltsua bada, eskaera baliogabetu egingo da; horrez gain, egileei erantzukizuna eskatu ahal izango zaie.

**Seigarrena. Bateragarritasuna**

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede bererako jaso daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin. Horregatik, eskaera aurkeztean, adierazi egin behar da xede bererako beste laguntza edo dirulaguntza batzuk eskatu diren ala ez. Eskatu badira, honakoak erantsiko dira: eskaeren fotokopia konpultsatuak eta emandako ebazpenak, dirulaguntza onartzekoak (zenbatekoa adierazita) zein ukatzekoak; ebazpena ez bada eman oraindik, horri buruzko adierazpena aurkeztu behar da.

Edonola ere, ezingo da gainfinantzaketarik gertatu, hots, onuradunak dirulaguntzen bidez xede bererako jasotzen duen guztizko kopuruak ezin du izan jardueraren gastua baino gehiago.

#### **Zazpigarrena. Aurrekontuko zuzkidura**

Ordenantza honen babesean ematen diren dirulaguntzen zenbateko osoak ezin du gainditu Udalbatzak urtero onartzen duen aurrekontu partida.

Ordenantza honetan arautzen diren dirulaguntzak emango dira baldin eta horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago.

#### **Zortzigarrena. Laguntzen zenbatekoa eta dirulaguntzaren muga**

Hauxe izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: Udalak edo haren mendeko erakundeak udalerrri horretan erroldatutakoei aplikatzen dizkien tarifen eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifen arteko aldearen ehuneko 100, kalterik egin gabe aurreko artikuluan ezarritakoari eta artikulua honetan jasotako mugari.

Eskatzaile bakoitzarengatik (banakakoa nahiz familia unitatea, jarduera familia osorako ordaintzen bada) 2.000,00 euroko gehieneko dirulaguntza ezartzen da, hartara eskatzaile bakoitzak (banakakoa nahiz familia unitatea) laguntza eskatzen den urte guztietan zehar, eskura dezakeen zenbateko metatuak ez du muga hori gaindituko.

#### **Bederatzigarrena. Eskaerak, agiriak eta epea**

Udalak iragarkia argitaratuko du urtero, interesdunek dirulaguntza eskatu ahal izateko. Iragarki horretan, aurrekontuetan eskaerei erantzuteko onartutako gehieneko aurrekontu partida ezarriko da.

Horrez gain, eskaerak aurkezteko epea ere adieraziko da.

Eskatuko den jardueraren kuota familiakoa bada, nahikoa izango da familia unitateko adindun batek eskatzea.

Eskaerak eta artikulua honetan eskatzen diren agiriak udalean aurkeztu beharko dira inprimaki normalizatuan, kasuan kasuko iragarkian finkatzen diren epeen barruan. Urteko eskaera bakoitzean aurre-aurreko urtean (urtarriletik abendura bitartekoak) ordaindutako kuotak baino ezin izango dira sartu.

Aurkeztutako agirietan irregulartasun edo hutsen bat antzematen bada, hura zuzentzeko 10 egun izango dira, udalak eskaera egiten duenetik aurrera.

Epea igaro ondoren eskaera zuzendu ez bada, artxibatu eta administrazio baliorik gabe geratuko da.

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

#### **I. eranskina**

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia. Adingabeen kasuan, eskatzaileak jarduera egiten duen onuradun adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izan behar du.

b) Dirulaguntzan eskatzen diren kuotak familiakoak badira, edo dirulaguntza eskatzen bada kargura dauden adingabe batek edo gehiagok egindako jarduerarako, hauexek aurkeztu beharko dira: familia liburuaren fotokopia, non jasotzen diren eskatzailearen eta adingabe onuradunaren datuak; hala badagokio, adingabearen legezko tutoretza emateko hartutako ebazpena.

c) Jarduera egiteagatik udalari edo mendeko erakundeari ordainketa egin izana egiaztatzen duen bankuaren jatorrizko agiria edo, horrelakorik izan ezean, dagokion ordainagiriaren kopia konpultsatua (ordainketa egina dagoela jaso behar du). Horrez gain, erakundearen ziurtagiria ere aurkeztu beharko da (kiroldegiak berak edo udalak edo hura kudeatzen duen erakunde autonomoak egina), non jasotzen den onuradunak ordainduta dituela dirulaguntza eskatzen deneko kuota guztiak.

d) Zinpeko aitortpena, beste dirulaguntza batzuk eskatu diren ala ez jasotzen duena eta, hala badagokio, eskaeraren fotokopia konpultsatua. Eskaeraren erantzuna jaso bada, ebazpenaren fotokopia konpultsatua, dirulaguntza onartzekoa (emandako zenbatekoa adierazita) edo ukatzekoa. Ebazpena emateko zain egonez gero, horren berri eman behar da (II. eranskina).

e) Administrazio aginpidedunak egindako ziurtagiria, non jasotzen den eskatzaileak egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak edo, bestela, eskatzaileak izenpetutako baimena, Aiarako Udalak bere ordezi ziurtagiria eska diezaion administrazio aginpidedunari, hain zuzen, jasotzen duena eskatzaileei dagokienez, egunean dituztela Foru Ogasuneko zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

f) Adierazpena, dirulaguntzaren eskatzailea eta onuraduna azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren, dirulaguntzenaren, 13. artikulua jasotzen dituen onuradun izateko debekuen eraginpean ez daudela adierazten duena (III. eranskina).

g) Jarduera egiten den herriko udalaren edo haren mendeko erakundearen ziurtagiria, non agertzen den zein den jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasa edo tarifa. Halaber, idatzita egongo da udalerrri horretan erroldatutakoek eta erroldatuta ez daudenek zein tarifa ordaindu behar duten.

h) Aiarako udalerrriaren errolda ziurtagiria, adierazten duena onuradunaren antzinatasuna, eta onuraduna adingabea bada, eskatzailearena (aita, ama edo legezko tutorea).

#### **Hamargarrena. Eskaerak aztertu eta ebaztea**

Dirulaguntzak ematen dituen organoak aztertu eta baloratuko ditu eskaerak, teknikariaren txostenak lortu ondoren. Ondoren, kasuan kasuko informazio batzordean emango da horren berri.

Egoki joz gero, aurkeztutako agiriei buruzko datuak edo azalpenak eska ditzake udalak, eskaerak hobeto aztertu edo baloratzeko.

Alkate-lehendakariak izango du laguntzak ebazteko eskumena, informazio batzordearen txostena jaso ondoren.

Ebazpenaren bidez, laguntza onartu edo ukatu egingo da. Azken kasu horretan, arrazoiak ere azalduko dira. Ebazpenean eskatzailearen datuak, laguntzen zenbatekoa eta, hala badagokio, ezarri diren baldintzak adierazi behar dira.

Ebazpena eskatzaile guztiei helaraziko zaie.

Eskaerak ebatzi eta jakinarazteko, gehienez ere, bost hilabete izango dira, udaletxean eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

#### **Hamaikagarrena. Dirulaguntza ordaintzea**

Dirulaguntzaren zenbateko osoa (ehuneko 100) laguntza ematearen aldeko ebazpena onartzean ordainduko da.

#### **Hamabigarrena. Kontrola**

Dirulaguntza ematen duen organoak nahi dituen administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeko. Onuradunak ikuskatze horretan laguntzeko betebeharra du, eskatutako datuak emanaz.

#### **Hamahirugarrena. Dirulaguntza galtzea**

Laguntzen onuradunek azpian zehaztutako baldintzaren bat betetzen ez badute, espedientea irekiko da jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik sortutako berandutze interesak itzultzeko.

Hona hemen zein kasutan irekiko den dirulaguntza galtzeko espedienteak:

- a) Aurkeztutako eskaeran eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- b) Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunari diruz lagundu zaion jardueraren kostua gainditzen badu.
- c) Aiarako Udalari ez bazaio jakinarazi beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk jaso direla, nahiz eta ordurako Aiarako Udalak likidazioa onartuta izan.
- d) Oro har, ordenantza honetan ezarritako betebeharrak bat betetzen ez bada.

#### Hamalagarrena. Arau hausteak eta zehapenak

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak ez betetzeak emandako laguntza galtzea ekarriko du, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, V. Tituluan jasotako arau hauste erregimena eta dagozkion administrazio zehapenak aplikatuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2015eko otsailaren 19a

*Alkate-lehendakaria*  
**JOSU ARTETXE ARANA**

### I. ERANSKINA

Familiatzako dirulaguntza eskaera, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldetietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordain ditzaten

ESKATZAILEAREN IZEN-ABIZENAK	NAN	TELEFONOA	HELBIDE ELEKTRONIKOA

HELBIDEA	P. K.	HERRIA	PROBINTZIA

ERAKUNDEAREN IZENA (bankua edo kutxa)	BANKUKO KONTU ZK.		
	ES		

#### ONURADUNEN ETA ORDAINDUTAKO KUOTEN DATUAK:

IZEN-ABIZENAK	NAN	KIROLDEGIA/UDALERRIA	KOSTUA, GUZTIRA (BANAKAKO ETA FAMILIAKO KUOTA) 2014. URTEA

## ADIERAZTEN DU

– Bete egiten dituela Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko Aiarako Udalak familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan ezarritako betekizunak.

## HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Familia liburuaren fotokopia, non jasotzen diren eskatzailearen eta adingabe onuradunen datuak.
- Hala badagokio, adingabe onuradunaren legezko zaintza emateko hartutako ebazpena.
- Jarduera egiteagatik udalari edo mendeko erakundeari ordainketa egin izana egiaztatzen duen bankuaren agiria edo, horrelakorik izan ezean, ordainagiriaren kopia konpultsatua (ordainketa egina dagoela jaso behar du).
- Erakundearen jatorrizko ziurtagiria (kiroldegiak berak edo udalak edo hura kudeatzen duen erakunde autonomoak egina), non jasotzen den onuradunak ordainduta dituela kuota guztiak.
- Beste dirulaguntza batzuen berri emateko adierazpena (II. eranskina).
- Debekuen eraginpean ez egoteari buruzko adierazpena (III. eranskina).
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duen agiria.
- Eskatzaileak izenpetutako baimena, Aiarako Udalak bere ordezi ziurtagiria eska diezaion administrazio aginpidedunari, hain zuzen, jasotzen duena egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- Jarduera egiten den herriko udalaren edo haren mendeko erakundearen ziurtagiria, non agertzen den zein den jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasa edo tarifa. Halaber, idatzita egongo da udalerrri horretan erroldatutakoek eta erroldatuta ez daudenek zein tarifa ordaindu behar duten.
- Aiara udalerrriaren errolda ziurtagiria, adierazten duena onuradunaren antzintasuna, eta onuraduna adingabea bada, eskatzailearena (aita, ama edo legezko tutorea).

Horregatik guztiagatik, dirulaguntza ESKATZEN DUT, ordenantza arautzailearen arabera.

Arespalditza, 20.....(e) ko .....aren .....(a).

Izpta.:

AIARAKO UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARIA

## II. ERANSKINA

.....jaunak/andreak hauxe

ADIERAZTEN DUT neure erantzukizunpean:

- EZ, ez dut eskatu beste dirulaguntzarik eskaera honetan jasotako jarduerarako.
- BAI, beste dirulaguntza batzuk eskatu ditut eskaera honetan jasotako jarduerarako (erantsi eskaera).

Hala bada, datu hauek bete behar dira:

– Zein erakunderi eskatu zaion: .....

(Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza...)

– Dirulaguntza onartu bada, adierazi zenbatekoa (..... euro) eta erantsi ebazpenaren fotokopia.

Dirulaguntza ukatu bada, jarri X.

Arespalditza, 20.....(e) ko .....aren .....(a).

Izpta.:

### III. ERANSKINA

.....jaunak/andreak

ADIERAZTEN DUT, nire erantzukizunaren pean, ez nagoela azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, 13. artikulua jasotzen dituen onuradun izateko debekuen eraginpean.

Arespalditza, 20.....(e) ko .....aren .....(a).

Izpta.: